



Kode Etikoa 2025



Nork egin du dokumentu hau?

Dokumentu hau Plena inclusión elkartean parte hartzen duten mila pertsona baino gehiagok egin dute. Étnor Fundazioak lagundu die.

Dokumentua Plena inclusión elkarteko Zuzendaritza Batzordeak onartu du 2025eko ekainean.



Plena inclusión España erakunde bat da. Adimen-desgaitasuna edo garapen-desgaitasuna duten pertsoneri laguntzen die. Baita haien familiei ere. Haien eskubideak defendatzen laguntzen die.



Étnor Fundazioa erakunde bat da. Beste erakunde batzuei laguntzen die gauzak ondo eta kalitatez nola egin daitezkeen pentsatzen. Baita pertsona guztien eskubideak errespetatuz.

Nork lagundu du dokumentu hau egiten?



Eskubide Sozialen Estatu Idazkaritzak dirua eman du dokumentu hau egiteko.

Eskubide Sozialen Estatu Idazkaritza Espainiako ministerio baten parte da eta gai asko antolatzen ditu.

Adibidez, gizartea hobetzen duten jarduerak egiten laguntzen du.



Dokumentu honek

ONCE Fundazioaren dirulaguntza jaso du.

Dokumentu hau

Irakurketa Errazerako UNE 153101:2018 EX araua jarraituz idatzi eta argitaratu da.


UNE 153101:2018 EX araua, arau ofizial bat da, eta dokumentu bat irakurketa errazean egoteko nolakoa izan behar den esaten du.



© Irakurketa errazaren logotipoa Inclusion Europe erakundearena da. Informazio gehiago duzu hemen: <https://www.inclusion-europe.eu/>




Dokumentu hau euskarara egokitu eta baliozkotu du ErrazTEA irisgarritasun kognitiboko zerbitzuko taldeak.



Bárbara López de Toledok diseinatu, irudiztatu eta maketatu du dokumentu hau.

Dokumentu honek
Creative Commons izeneko lizentzia du.
Hori lizentzia baten izena da ingelesez.



Lizentzia hau irudi honekin adierazten da.

Lizentziak esan nahi du
dokumentua partekatu dezakezula,
baina baldintza hauek bete behar dituzu:

- Esan dokumentu hau Plena inclusión España erakundearen argitalpen bat dela.
- Ez aldatu dokumentuaren testua edo irudiak.
- Partekatu dokumentua doan eta ez erabili dirua irabazteko.

Lizentzia honi buruz gehiago jakin nahi baduzu,
sakatu esteka [honetan](#).

Argitalpen-urtea: 2025.

Dokumentuan zehar,

letra lodiz eta **urdinez** idatzitako hitzak aurkituko dituzu.

Honek esan nahi du

hitz zail horien definizioa **glosa** batean edo testuan bertan aurki dezakezula.

Hitza testuan lehenengo aldiz agertzen denean,

glosa bat agertuko da ondoan.

Gainerako aldietan,

hitza **urdinez** eta **letra lodiz** ikusiko duzu **glosarik** gabe, eta haren esanahia dokumentuko Ezagutu behar dituzun hitzak atalean kontsultatu ahal izango duzu.

Aurkibidea

● Ezagutu behar dituzun hitzak _____	11
● Zer da Plena inclusión elkartearen Kode Etikoa? _____	17
Zergatik Kode Etiko berri bat? _____	20
Nola egin du Plena inclusion elkarteak Kode Etiko hau? _____	20
● Plena inclusión elkartearen balioak _____	23
Errespetua _____	25
Zer egin behar dugu	
errespetuaren balioa praktikan jartzeko? _____	27
Justizia _____	31
Zer egin behar dugu	
justiziaren balioa praktikan jartzeko? _____	33
Bizitza Betea _____	37
Zer egin behar dugu	
bizitza betearen balioa praktikan jartzeko? _____	39
Zintzotasuna _____	43
Zer egin behar dugu	
zintzotasunaren balioa praktikan jartzeko? _____	46
Elkarrizketa _____	51
Zer egin behar dugu	
elkarrizketaren balioa praktikan jartzeko? _____	52

● Kode Etikoari buruzko informazioa _____	55
● Zer egin Kode Etikoari buruzko zalantzak badituzu? _____	57
Zer gertatzen da kontsulta bat egiten duzunean? _____	58
Eta zerbait salatu nahi badut? _____	58



Ezagutu behar dituzun hitzak

Adimen artifiziala:

Makinek edo ordenagailuek pertsona batek bere egunerokoan egiten dituen gauzak egiten ikasten dutenean gertatzen da. Adibidez, idazten, irudiak ulertzen edo galderari erantzuten.

Aniztasuna:

Pertsona guztiak ezberdinak eta bakarrak garela esan nahi du. Aniztasuna positiboa da, elkarrengandik ikasten eta gizarte errespetuzkoago batean bizitzen laguntzen digulako.

Aurreiritzia:

Zerbaiti edo norbaiti buruzko ideia edo iritzi negatiboa da, hura ezagutu aurretik eta arrazoi zehatzik gabe izaten dena.

Autonomia:

Pertsona batek bere bizitza nola bizi nahi duen askatasunez erabakitzea da.

Balioak:

Pertsona edo erakunde batek ontzat jotzen dituen jarrerak dira.

Bidezko lan-baldintzak:

Lan batek baldintza hauek betetzen dituzten da:

- Segurua da.
- Soldata legeen arabera ordaintzen da, eta lanean jarri beharreko ahaleginaren eta erantzukizunaren arabera da.

Giza eskubideak errespetatzen dira.

Bidezko nahia:

Pertsona batek nahi duen nahi bidezkoa da, eta hori lortzeko laguntza jasotzeko eskubidea du.

Bizi-interpretzea:

Komunikatzeko zailtasunak dituen

beste pertsona bat ulertzen saiatzen den pertsona da.

Horretarako, bere keinuei, soinuei eta mugimenduei erreparatu die.

Baita gustuko duenari

eta beste pertsona batzuekin bizi izan duenari ere.

Bizi-proiektua:

Pertsona batek bere bizitzako helburuak lortzeko egiten duen plana da.

Boluntarioak:

Doan kolaboratzen eta lanak egiten dituzten pertsonak dira.

Duintasuna:

Pertsona bakoitzak,

pertsona izate hutsagatik,

duen garrantzia da.

Ekitatea:

Pertsona bakoitzari behar duena ematea da, gainerakoen aukera berberak izan ditzan.

Elkarte-mugimendua:

Zure sexualitateari buruz eta seme-alabak izateari edo ez izateari buruz erabakitzen laguntzen dizuten eskubideak dira.

Etikoa:

Zer dagoen ondo edo zer dagoen gaizki pentsatzea da. Baita geure buruarekiko eta besteekiko errespetuz jokatzeko ere.

Federazioa:

Hainbat elkarte edo beste erakunde batzuek osatutako erakunde bat da.

Gardentasuna:

Egia esatea eta informazioa ez ezkutatzea da, pertsonak uler ditzaten hartzen diren erabakiak eta egiten diren gauzak.

Gune segurua:

Pertsonak ondo sentitzen diren leku bat da; bertan, errespetatuak dira eta ez dute biolentziarik edo diskriminaziorik jasaten. Era berean, askatasunez adieraz daitezkeen lekua da.

Interdependentzia:

Pertsona guztiok beste batzuen beharra daukagula esan nahi du, batzuek laguntza gehiago behar badute ere.

Jardunbide egokiak:

Egoera batean ondo funtzionatu duten ekintzak dira, eta beste egoera batzuetan ere ondo funtziona dezaketenak.

Joerak:

Balio batzuen arabera jokatzeko gidatzen zaituzten aholkuak dira.

Komunitate inklusiboa:

Leku berean bizi diren pertsona ezberdinen multzoa da. Guztiek elkar errespetatzen eta onartzen dute, inor diskriminatu gabe.

Konfederazioa:

Hainbat federaziok osatzen duten erakunde bat da.

Konfidentziasuna:

Beste pertsona bati buruzko informazio pertsonala kontuz gordetzea eta ez kontatzea da.

Kontuak ematea:

Egin duzuna, zergatik egin duzun eta emaitza zein izan den azaltzea da. Baita hanka sartu duzula onartzea eta hori nola konponduko duzun esatea ere.

Lidergo kooperatiboa:

Pertsona batek edo batzuek talde bat koordinatzea da, baina beti entzunez eta erabakiak taldean hartuz.

Liderra:

Helburu bat lortzeko
beste batzuk gidatzen dituen pertsona da.

Mundu anitza:

Pertsona ezberdin asko
bizi diren mundu bat da.

Orientazio sexuala:

Beste pertsona batzuk gustuko dituzunean
eta erakartzen zaituztenean da.
Adibidez, zure sexu bereko pertsonak,
sexu ezberdinekoek edo bietakoek erakar zaitzakete.

Pertsonalizatu:


Gauza bat edo haren ezaugarriak pertsona baten gustura
edo beharretara egokitzea da..

Protokoloa:

Egoera baten aurrean
pertsonek eman beharreko pausoak zeintzuk diren
azaltzen duen dokumentua da.

Salaketa-kanala:

Posta elektronikoa bat edo telefono bat da.
Bertan, pertsonak ohartarazi dezakete zerbait gaizki dagoela,
edo norbait ez dela arauak betetzen ari kontatu dezakete.



Zer da Plena inclusión elkartearen Kode Etikoa?

Dokumentu hau

Plena inclusión elkartearen Kode **Etiko** berria da.

Kode **Etikoa** egunerokotasunean bizitzeko **balio** eta **joera** multzo bat biltzen duen dokumentua da.

Kode **Etikoa** gida bat da, pertsoneri erabakiak hartzen eta jarduten laguntzen eta orientatzen diena.

Honetarako ere balio du:

- Plena inclusión kide guztiei zer den azaltzeko.
- Erakunde honek etorkizunean nolakoa izan nahi duen azaltzeko.

Etikoa:

Zer dagoen ondo edo gaizki pentsatzea da. Baita geure buruarekiko eta besteekeko errespetuz jokatzeko ere.

Balioak:

Pertsona edo erakunde batek ontzat jotzen dituen jarrerak dira.

Joera:

Balio batzuen arabera jokatzeko gidatzen zaituzten aholkuak dira.

Plena inclusión elkartearen misioa egunero lan egitea da, adimen-desgaitasuna edo garapen-desgaitasuna duten pertsonek eta haien familiek:

- Bizitza duina eta kalitatezkoa izan dezaten.
Hau da, zoriontsu izateko behar dutena izan dezaten, haien bizitzari buruz erabaki ahal izan dezaten eta, behar izanez gero, laguntza jaso dezaten.
- Haien eskubideak erabili ahal izan ditzaten.

Misio honekin, Plena inclusión elkarteak mundu bidezkoago eta solidarioago bat sortzen lagundu nahi du. Adibidez, pertsonak diskriminatzen ez diren eta denon artean elkarri laguntzen diogun mundu bat.

Misio hori lortzeko,
Plena inclusión elkarteko pertsona
eta erakunde guztiek
Kode **Etikoa** bete behar dute:

- Erabakiak hartzen dituzten pertsona-taldeek.
- Profesionalek.
- Boluntarioek.**
- Adimen-desgaitasuna edo garapen-desgaitasuna duten pertsonak.
- Senideek.
- Elkartek, fundazioek eta beste erakunde batzuek.
- Federazioek.**
- Konfederazioek.**
- Plena inclusión elkartean parte hartzen duten beste pertsona batzuek.

Boluntarioak:

Doan kolaboratzen eta lanak egiten dituzten pertsonak dira.

Federazioa:

Hainbat elkarte edo beste erakunde batzuek osatutako erakunde bat da.

Konfederazioa:

Hainbat federaziok osatzen duten erakunde bat da.

Plena inclusión elkarteak espero du pertsona eta erakunde horietako bakoitzak Kode **Etikoa** bere egunerokotasunean erabiltzea eta beti gida garrantzitsu gisa hartzea.

Zergatik Kode Etiko berri bat?

Plena inclusión elkarteak beti izan du konpromiso **etiko** bat.

Hau da, beti arduratu da modu bidezkoan eta egokian lan egiteaz, eta beti pertsonen ongizatean pentsatuz.

Lehenengo Kode **Etikoa** 2005ekoa da. Urte hauetan, gizartea asko aldatu da. Horregatik, Plena inclusión elkarteak Kode **Etiko** berri bat onartu du, **mundu anitz** baten aldaketetara eta erronketara egokitzeko.

Mundu anitza:

Pertsona ezberdin asko bizi diren mundu bat da.

Nola egin du Plena inclusión elkarteak Kode Etiko hau?

Plena inclusión elkarteak modu parte-hartzailean eta xehetasun handiz egin du dokumentu hau. Horretarako, Étnor Fundazioaren laguntza izan du.

Hilabete askotan zehar, Plena inclusión elkarteak hainbat pertsonarekin bildu da haien iritzia ezagutzeko. Banakako eta taldekako elkarrizketak egin ditu. Guztira, Plena inclusión elkarteko arlo desberdinetako mila pertsona baino gehiagok eman dute haien iritzia.

Lan oso luzea eta zehatza izan da,
Plena inclusión elkarteak
erakundea osatzen duten pertsona
eta entitate guztien ikuspegi
eta iritzi guztiak kontuan hartu nahi dituelako.

Horrela, Kode **Etikoak**
pertsona guztiak ordezkatzeko ditu,
eta pertsona eta erakunde guztiak
Plena inclusión elkartearen ideia
eta **balioekin** identifikatuta sentituko dira.

Gainera, dokumentu honek
Plena inclusión elkartearen
Plan Estrategikoko ideia garrantzitsuenak jasotzen ditu.

Idea horiek honako hauek dira:

● **Pertsonak ahalduntzea.**

Honek esan nahi du adimen-desgaitasuna
edo garapen-desgaitasuna duten pertsonak
erabaki gehiago hartu ditzaketela haien bizitzan,
eta parte-hartze handiagoa izan dezaketela
erakundeetan, auzoetan eta hirietan.

● **Interdependentziaren etika.**

Elkarrekin pentsatzeko eta jarduteko modu bat da;
pertsona guztiok elkarren beharra dugula esaten du.
Inor ezin da bizi bakarrik modu osoan.
Pertsona guztiok behar dugu laguntza
gure bizitzako une desberdinetan.

Interdependentzia:

Pertsona guztiak beste batzuen
mende gaudela esan nahi du,
batzuek laguntza gehiago behar
badute ere.

■ Erakunde jasagarriak.

Erakundeek ingurumena zaintzea eta etorkizunean funtzionatzen jarraitzeko baliabide nahiko izatea esan nahi du.

Adibidez,

honako hauek dituzten erakundeak:

dirua, profesionalak

edo pertsoneri laguntzeko guneak.

Plena inclusión elkartearen balioak


Balioak Plena inclusión elkartearen ustez jarduteko onak diren jarrerak dira.

Beste pertsona eta talde batzuekin nola jokatu behar dugun jakiten laguntzen digute.


Plena inclusión elkartearen irudia hirusta bat da, eta 5 zatiz osatuta dago: 4 hosto eta txortena.

5 zati horiek Plena inclusión elkartearen 5 **balioak** ordezkatzeko dituzte:

- Justizia.
- Bizitza Betea.
- Zintzotasuna.
- Elkarrizketa.
- Errespetua.



Jarraian, balio bakoitzak zer esan nahi duen azalduko dizugu, baita Plena inclusión elkarteko kide guztiok balio horiek praktikan jartzeko zer egin behar dugun ere.





Errespetua

Errespetua

pertsona bakoitzaren **duintasuna** onartzea da.

Duintasuna pertsona bakoitzak, pertsona izate hutsagatik, duen garrantzia da.

Duintasuna:

Pertsona bakoitzak, pertsona izate hutsagatik, duen garrantzia da.

Pertsona bakoitza errespetatu behar da eta ez da inor diskriminatu behar.

Pertsona guztiek dute nahi duten bizitza bizitzeko eskubidea.

Pertsonei haien ametsen edo nahien alde borrokatzen utzi behar zaie.

Errespetatzeak hau ere esan nahi du:

- Pertsonak ez **manipulatzea**, ezta nahi ez dituzten gauzak egitera behartzea ere.
- Pertsonak ondo tratatzea.
- Pertsona bakoitzaren nahiak ulertzeko ahalegina egitea.
- Onartzea pertsona guztiok **komunitate inklusibo** baten parte garela; komunitate hori pertsona ezberdinez osatuta dago, eta guztiok dugu gure lekua bertan.

Manipulatzea:

Pertsona batek beste bat behartzen duenean nahi ez duen zerbait egitera zintzoa izan gabe.

Komunitate inklusiboa:

Leku berean bizi diren pertsona ezberdinen multzoa da. Guztiek elkar errespetatzen eta onartzen dute, inor diskriminatu gabe.

Zer egin behar dugu errespetuaren balioa praktikan jartzeko?

- Adimen-desgaitasuna edo garapen-desgaitasuna duen pertsona bakoitza **autonomoagoa** izan dadin bultzatuko dugu.

Era berean, lanean arituko gara pertsona ondo senti dadin eta gaitasun berriak garatu ditzan, erabakiak hartu ahal izateko eta bere **bizi-proiektua** sortzeko.

Autonomia:

Pertsona batek bere bizitza nola bizi nahi duen askatasunez erabakitzea da.

Bizi-proiektua:

Pertsona batek bere bizitzako helburuak lortzeko egiten duen plana da.

- Pertsona guztiek eskubideak dituztela onartuko dugu.

Adimen-desgaitasuna edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen lagunduko diegu haien betebeharrak eta erantzukizunak bete ditzaten, eta gizartean errespetuz bizi daitezen.

- Adimen-desgaitasuna edo garapen-desgaitasuna duten pertsona guztien eskubideak defendatuko ditugu eta haien alde borrokatuko gara. Administrazioen eta gizartearen aurrean.

- Pertsona guztiak errespetu berberarekin tratatuko ditugu, nolakoak diren edo haien egoera zein den kontuan hartu gabe.

Adimen-desgaitasuna edo garapen-desgaitasuna duten pertsoneri lagunduko diegu bizitzako arlo guztietan modu aktiboan parte har dezaten. Inork haien orde ez erabaki gabe eta zer egin edo zer pentsatu behar duten esan gabe.

Arretaz eta errespetuz entzungo diegu desgaitasuna duten pertsoneri, haien familiei eta profesionalak izan gabe laguntzen dieten pertsoneri. Adibidez, haien lagunei, auzokideei edo **boluntarioei**.

Onartuko dugu pertsona horiek guztiak Plena inclusión elkarteko eta bere erakundeetako **liderrak** direla, eta erabakiak hartzen ere parte hartu behar dutela.

Liderra:

Helburu bat lortzeko

beste batzuk gidatzen dituen pertsona da.

Ahalegin handia egingo dugu komunikatzeko zailtasun handiak dituzten pertsonen nahiak eta beharrak ulertzeko. Horretarako, garrantzitsua da horiei entzutea, ulertzea eta nola sentitzen diren pentsatzea. Baita horiek errespetatzea ere.

Behar duten laguntza emango diegu.

Adibidez,

komunikazio-sistema alternatiboak

edo **bizi-interprete** bat.

Bizi-interpretea:


Komunikatzeko zailtasunak dituen beste pertsona bat ulertzen saiatzen den pertsona da.

Horretarako, bere keinuei, soinuei eta mugimenduei erreparatzen die.

Baita gustuko duenari eta beste pertsona batzuekin bizi izan duenari ere erreparatzen die.

- Erakundeen guneak eta informazioa irigarriak izango dira pertsona guztientzat, irigarritasun unibertsalaren printzipioari jarraituz.
- Informazioa eta inguruneak ulertzeko errazak izango dira pertsona guztientzat. Adibidez, ez galtzeko seinaleak egongo dira, webguneetan nabigatzea erraza izango da eta dokumentu garrantzitsuak irakurketa errazean egongo dira.

Horrela, pertsona guztiek izango dute aukera informazioa jasotzeko, askatasunez erabakitzeke eta jokatzeko eta beren buruarekin ondo sentitzeko.





Justizia

Justizia eta **ekitatea**
oinarrizko 2 **balio** dira
Plena inclusión elkartearentzat.

Ekitatea:

Pertsona bakoitzari behar duena ematea da,
gainerakoen aukera berberak izan ditzan.

Horiei esker,
Plena inclusión elkarteak
gizarte inklusiboago bat eraikitzeko
lan egiten du.

Gizarte inklusiboa honako hau da:
pertsona guztiek ondo bizitzeko
aukera berdinak dituzten gizartea,
honako hauek kontuan hartu gabe:

- Desgaitasuna duen ala ez.
- Bere sexua.
- Bere jatorria.
- Duen dirua.
- Bere **orientazio sexuala**.
- Beste edozein ezberdintasun.

Orientazio sexuala:

Beste pertsona batzuk gustuko
dituzunean eta erakartzen
zaituztenean da.

Pertsonak modu bidezkoan tratatzea ezinbestekoa da
diskriminaziorik gabeko inguruneak
eta **aniztasuna** eta desberdintasuna
gauza onak direla onartzen duten inguruneak eraikitzeko.

Gainera, erakunde bidezkoagoak eta jasangarriagoak
egiteko modu bat da.

Benetako berdintasunak esan nahi du
pertsona bakoitzari behar dituen laguntzak ematea,
bere eskubideak gainerako pertsonen bezala
erabili ahal izan ditzan.

Aniztasuna:

Pertsona guztiak ezberdinak
eta bakarrak garela esan
nahi du.

Aniztasuna positiboa da,
elkarrengandik ikasten
eta gizarte errespetuzkoago batean
bizitzen laguntzen digulako.

Zer egin behar dugu justiziaren balioa praktikan jartzeko?

● Ez dugu diskriminaziorik onartuko, ez Plena inclusión elkartearen barruan, ez kanpoan. Ez dugu onartuko inork beste pertsona bat txarto tratatzea arrazoi hauengatik:

- Bere jatorria.
- Bere sexua edo adina.
- Bere orientazio sexuala.
- Bere erlijioa edo hizkuntza.
- Bere desgaitasuna.

Hori gertatzen bada, jardun egin behar dugu, erakundeko edozein ataletan berriro gerta ez dadin.

Adibidez, erabakiak hartzen dituen taldearen barruan, profesionalen artean edo adimen-desgaitasuna duten pertsonen artean, besteak beste.

● Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko eta aukera-berdintasunaren aldeko ekintzak jarriko ditugu martxan, pertsona guztiek tratatu bidezkoa eta desberdintasunik gabekoa jaso dezaten. Adibidez, **protokoloak**.

Protokoloa:

Egoera baten aurrean pertsonak eman beharreko pausoak zeintzuk diren azaltzen duen dokumentua da.

● Pertsona bakoitza desberdina da.
Pertsona bakoitzari behar dituen laguntzak eman behar dizkiogu, bere erabakiak har ditzan eta bere **bidezko nahiak** lor ditzan.

Adibidez, agian Ferrari bat nahi duzu, baina hori ezin diozu zure erakundeari eskatu. Baina lana aurkitzeko prestakuntza gehiago eskatu dezakezu. Prestakuntza **bidezko nahia** da.

Bidezko nahia:

Pertsona batek nahi duen nahi bidezko bat da, eta hori lortzeko laguntza jasotzeko eskubidea du.

● Profesionalak eta boluntarioak etengabe formatuko ditugu. Prestakuntza eta tresnak emango dizkiegu haien lana ondo egin dezaten. Hau da, modu eraginkorrean, bidezkoan eta errespetuz, pertsonen beharretan pentsatuz.


● Ikasteko eta lan egiteko eskubidea defendatuko dugu. Adimen-desgaitasuna edo garapen-desgaitasuna duten pertsona guztiek hezkuntza- eta prestakuntza-zentroetan eta lanetan egoteko eskubidea dute, beste edozein pertsonak bezala, behar dituzten laguntza eta egokitzapenekin.


Gainera, adimen-desgaitasuna edo garapen-desgaitasuna duten pertsonak eta egoera txarragoan dauden beste pertsona batzuek lana lor dezaten eta lanean jarrai dezaten sustatuko dugu.

- Adimen-desgaitasuna edo garapen-desgaitasuna duten pertsona guztien **eskubide sexual eta erreproduktiboak** modu aktiboan defendatuko ditugu.

Pertsona guztiek maitasunaz eta sexuaz gozatzeko eta seme-alabak izan nahi dituzten ala ez erabakitze eskubidea dute. Baita desgaitasuna duten pertsonak ere. Pertsonak lagunduko diegu haien gorputzari eta harremanei buruz erabakiak har ditzaten.

Eskubide sexual eta erreproduktiboak:
Zure sexualitateari buruz eta seme-alabak izateari edo ez izateari buruz erabakitzen laguntzen dizuten eskubideak dira.





Bizitza betea

Bizitza betea izateak
bizitza zoriontsua eta zentzuduna
izatea esan nahi du.

Hau da, honako hau gertatzen den bizitza:

- Gustuko dituzun
eta zuretzat garrantzitsuak diren jarduerak egiten dituzu.
- Baliagarri sentitzen zara.
- Ikasi egiten duzu eta pertsona gisa hazten zara.
- Zuretzat garrantzitsuak diren pertsoekin zaude.
- Nola bizi nahi duzun erabakitzen duzu.
- Ondo sentitzen zara
zure gorputzarekin eta zure emozioekin.
- Zure oinarizko beharrak beteta dituzu,
adibidez, janaria edo etxea.

Pertsona guztiek bizitza betea izateko eskubidea dute. Baita desgaitasuna duten pertsonak ere. Baina, batzuetan, laguntza behar dute erabakiak askatasunez hartzeko. Gizarteak eta erakundeek laguntza hori ziurtatu behar dute, gainerako pertsonen baldintza berdinetan aukeratu ahal izan dezaten.

Adimen-desgaitasuna edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen bizitza bete eta zorientzua izaten laguntzeko, eta beren buruarekin ondo senti daitezen, garrantzitsua da 3 elementu hauek errespetatzea:

- Haien intimitatea.

Desgaitasuna duten pertsonen bakarrik egoteko uneak uztea. Baita pertsona horiek norekin hitz egin nahi duten edo norekin partekatu nahi duten haien informazio pertsonala erabakitzen uztea ere.

- Haien pribatutasuna.

Desgaitasuna duten pertsonen eta haien familiek haien informazio pertsonala kontrolatzeko eskubidea dute, baita informazio hori kontatu nahi duten eta nori kontatu nahi dioten erabakitzeko eskubidea ere.

■ Haien **konfidentzialtasuna**.

Erakundeek, profesionalek eta boluntarioek arreta handiz zaindu behar dute informazio pertsonala, eta ez dute erabili edo kontatu behar baimenik gabe. Laguntzeko bakarrik erabili behar dute.

Elementu hauek ezinbestekoak dira pertsonen **duintasuna** ziurtatzeko. Baita konfiantzazko eta segurtasunezko harremanak sortzeko ere, eta pertsona bakoitza bakarra dela onartzeko ere.

Konfidentzialtasuna:

Beste pertsona bati buruzko informazio pertsonala kontuz gordetzea eta ez kontatzea da.

Zer egin behar dugu bizitza betearen balioa praktikan jartzeko?

- Pertsona bakoitzari bere gaitasunak garatzen eta nahi duena lortzen lagunduko dioten laguntzak, guneak eta harremanak eskainiko dizkiogu. Bai erakundearen guneetan, bai komunitateko guneetan.

Komunitateko guneak auzo, herri edo hiri baten bizitza dagoen lekuak dira. Adibidez, kultur etxeak, zinemak, dendak eta tabernak.

Adimen-desgaitasuna edo garapen-desgaitasuna duten pertsoneri lagunduko diegu haien **bizi-proiektua** eraikitzen. Proiektu horrek zentzua izan behar du haientzat, zoriontsu egin behar ditu eta hazten eta garatzen lagundu behar die.

Gainera, desgaitasuna duen pertsonak bere **bizi-proiektua** komunitatean betetzeko aukera izan behar du. Hau da, bere hiri edo auzoan.

Familiei lagunduko diegu informazioa eta orientazioa emanaz, eta haiengandik gertu egonez, haien **bizi-proiektu** propioak izan ditzaten.

Gainera, onartuko dugu familiak ezinbestekoak direla adimen-desgaitasuna edo garapen-desgaitasuna duten senideek nahi duten bizitza izan dezaten.

Pertsonen pribatutasuna eta intimitatea ziurtatuko ditugu. Baita **konfidentzialtasuna** ere. Hau da, pertsona bakoitzaren informazioa zainduko dugu eta ez dugu partekatuko bere baimenik gabe.

● Pertsonentzako **gune seguruak** bultzatuko ditugu bizitza egiten duten leku guztietan. Gune horietan, pertsonen intimitatea ziurtatuta egongo da.

● Beti kontuan hartuko dugu adimen-desgaitasuna edo garapen-desgaitasuna duen pertsona, eragiten dion edozein gai tratatzeko.

● Pertsona bakoitzak bere bizitzako erabaki garrantzitsuetan parte har dezan bultzatuko dugu.

Horretarako, beharrezko informazioa duela ziurtatuko dugu, askatasunez erabaki ahal izan dezan.


● Profesionalak eta boluntarioak sentsibilizatuko ditugu **konfidentzialtasuna** ziurtatzearen eta adimen-desgaitasuna edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen intimitatea errespetatzearen garrantziaz.

● Ideia horiek guztiak Plena inclusión elkarteko erakundeek egiten duten lan guztian islatuta egongo direla ziurtatuko dugu.

Gune seguruak:

Pertsonak ondo sentitzen diren leku bat da; bertan, errespetatuak dira eta ez dute biolentziarik edo diskriminaziorik jasaten. Era berean, askatasunez adieraz daitezkeen lekua da.





Zintzotasuna

Zintzotasuna gure **balioen** arabera jokatzea da.

Hau da, ongi dagoela
pentsatzen dugunaren arabera.

Baita esaten duguna egitea,
asmo ona izatea eta arduratsuak izatea ere.

Zuzentasunez jokatzek hau esan nahi du:

- Erabakiek pertsonen bizitzan nola eragiten duten pentsatzea.
- Edozein pertsonari gure erabakiak eta horiek hartzeko arrazoiak modu argian azaldu ahal izatea.

Beti jarriko dugu lehenengo tokian
adimen-desgaitasuna edo garapen-desgaitasuna
duten pertsonen ongizatea eta garapena.

Eta beti azaldu beharko diegu
eragina jaso duten pertsonen
zergatik hartu ditugun gure erabakiak.

Zuzentasunez jokatzeari gain,
arduratsuak izan behar dugu
bai gure bizitza pertsonalean,
bai lanean.

Arduratsua izateak hau esan nahi du:

- Kalitatez lan egitea
eta pertsonen laguntzeko modu berri
eta hobeak bilatzea,
betiere haien beharren arabera.

- Erabaki bat hartzen dugunean
edo zerbait egiten dugunean,
horren ondorioak onartzea.

Ez dugu bakarrik onartu behar
erabaki bat hartzeko momentuan gertatzen dena;
geroago gertatu daitekeena ere onartu behar dugu,
positiboa edo negatiboa izan.

Adibidez, agian txakur bat izan nahi dut,
baina onartu behar dut
egunean hainbat aldiz atera behar dudala paseatzera,
nahiz eta gogorik ez izan,
edo al baitariarengana eraman behar dudala.

- Beste pertsona batzuekin harremanak ditugunean, prest egon behar dugu gure **aurreiritziak** zalantzan jartzeko eta, beharrezkoa bada, iritziz aldatzeko.

Baita ideia berriak izateko ere, hobetzen jarraitzeko, bai erakunde batean, bai Plena inclusión elkarteko **elkarte-mugimenduaren** artean eta gizartean.

Aurreiritzia:

Zerbaiti edo norbaiti buruzko ideia edo iritzi negatiboa da, hura ezagutu aurretik eta arrazoi zehatzik gabe izaten dena.

Elkarte-mugimendua:

Batez ere elkarteak diren eta helburu berberaren alde lan egiteko batzen diren erakundeen multzoa da.

Zer egin behar dugu zintzotasunaren balioa praktikan jartzeko?

- Asmo onez eta **gardentasunez** jokatuko dugu.

Inoiz ez dugu asmo txarrez edo gure onurarako bakarrik jokatuko.

Ez ditugu dirua, erakundeen interesak edo gure interes pertsonalak pertsonen eskubideen eta ongizatearen gainetik jarriko. Batez ere, adimen-desgaitasuna edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen gainetik.

Gardentasuna:

Egia esatea eta informazioa ez ezkutatzea da, pertsonak uler ditzaten hartzen diren erabakiak eta egiten diren gauzak.

- Erabaki bidezkoak eta arduratsuak hartuko ditugu.

Horretarako, erabaki horiek inplikaturako pertsonen bizitzan eta etorkizunean nola eragingo duten izango dugu kontuan. Gainera, inplikaturako pertsonari azaldu beharko diegu zergatik hartu ditugun erabaki horiek.

- Akatsak onartuko ditugu.

Erratzen bagara edo oker jokutzen badugu, ondorioak gure gain hartuko ditugu eta **kontuak emateko** bideak jarriko ditugu martxan

Kontuak ematea:

Egin duzuna, zergatik egin duzun eta emaitza zein izan den azaltzea da. Baita hanka sartu duzula onartzea eta hori nola konponduko duzun esatea ere.

Akatsak onartzeak eta **kontuak emateak**

lagunduko digu pertsonen
guregan konfiantza izaten
eta erakunde gisa hobetzen.

- Berrikuntzaren eta sormenaren alde egingo dugu,
zerbitzu eta laguntza berriak sortzeko.

Horrek esan nahi du
ideia eta modu berriak bilatuko ditugula
pertsonen ematen dizkiegun laguntzak
gehiago **pertsonalizatzeko**.

Pertsonalizatu:

Gauza bat edo haren ezaugarriak
pertsonei baten gustura
edo beharretara egokitzea da.

Era berean, etengabeko prestakuntza
eskainiko diegu profesional eta kolaboratzaileei.
Horrela, adimen-desgaitasuna edo garapen-desgaitasuna
duten pertsonen beharrei
modu eraginkor eta pertsonalizatuan
erantzun ahal izango diete.

- Pertsonei guztiak seguru,
errespetatuak eta entzunak sentituko diren
leku seguruak sortuko ditugu.

- Baliabideak modu arduratsu
eta eraginkorrean kudeatuko ditugu.
Dirua, denbora, materialak
eta pertsonei guztiak zainduko ditugu.
Baita ingurumena ere.

- Lanean jardungo dugu profesionalek **bidezko lan-baldintzak** izan ditzaten. Haien lana errekonozituko dugu, haien ahalegina baloratuko dugu eta tratu ona emango diegu.

Bidezko lan-baldintzak:

Lan batek baldintza hauek betetzen dituenean da:

- Segurua da.
- Soldata legeen arabera ordaintzen da, eta lanean jarri beharreko ahaleginaren eta erantzukizunaren arabera da.

Giza eskubideak errespetatzen dira.

- Desgaitasunari buruz ikasten jarraituko dugu, pertsonen beharrak hobeto ulertzeko eta haien **duintasuna** beti defendatzeko.

Gaur egun, desgaitasuna ulertzeko modu berriak daude, zientziaren aurrerapenei esker. Aurrerapen horietan oinarrituko gara.

Adibide batzuk honako hauek dira:

- Neurozientzia: garunak nola funtzionatzen duen aztertzeaz arduratzen da.
- Genetikari buruzko ikerketak.
- Ikuspegi transdiagnostikoa: arreta pertsonarengan eta bere bizitzan jartzea esan nahi du, eta ez bakarrik desgaitasunean edo gaixotasunean.
- Teknologia berriak, Adibidez: **adimen artifiziala**.
- Eta osasuna zein **aniztasuna** aztertzeakobeste modu berri batzuk.

Adimen artifiziala:

Makinek edo ordenagailuek pertsona batek bere egunerokoan egiten dituen gauzak egiten ikasten dutenean gertatzen da.


Adibidez:

- idazten,
- irudiak ulertzen
- edo galderei erantzuten.

Plena inclusión elkarteko erakunde guztiek
elkarrekin lan egitea
eta elkarri laguntzea nahi dugu.
Horregatik, honako hauek bultzatuko ditugu:

- Lankidetzeta.
Hau da, taldean lan egitea
helburu bera lortzeko.
- Pertsona guztien arteko errespetua.

Balio horiek oso garrantzitsuak dira
elkarte-mugimenduak ondo funtzionatzeko.





Elkarrizketa

Elkarrizketa, parte-hartzea eta konpromisoa oso garrantzitsuak dira komunitate inklusibo eta bidezkoa ziurtatzeko, pertsona guztien eskubideak errespetatuko dituen.

- Elkarrizketa errespetuz hitz egitea eta entzutea da. Gauzak zergatik egiten ditugun azaltzea, beste ideia batzuk entzutea baita horiek kontuan hartzeko prest egotea ere.
- Parte hartzea ezinbestekoa da erakundeek haien helburuak bete ditzaten, gardenak izan daitezen eta pertsonen ongiaren alde lan egin dezaten.
- Konpromisoa hartzea zeregin bat serio eta arduraz hartzea da.

Elementu horiek
erabakiak taldean eta hausnarketa egiten
hartzen diren erakundeak eraikitzen laguntzen dute.

Hau da, pertsona ezberdin gehienek
parte hartzen dute erabakietan,
eta sentitzen dutena edo egin nahi dutena
ondo pentsatzen dute erabaki bat hartu aurretik.
Horrela, pertsonen beharrak
eta nahiak hobeto jasotzen dira.

Pertsona guztien arteko lankidetzaz,
eta zailtasun gehien dituzten
pertsonekiko konpromisoa eta elkartasuna,
funtsezko jarrerak dira.

Modu honetan, adimen-desgaitasuna
edo garapen-desgaitasuna duten
pertsonek bizitza hobetzen da,
eta gizarte bidezkoagoa eta parekideagoa sustatzeko.

Zer egin behar dugu elkarrizketa balioa praktikan jartzeko?

- Elkarrizketarako guneak sortuko
eta mantenduko ditugu.
Bilerak edo ekintzak egongo dira
elkarrekin hitz egiteko eta hausnartzeko.

Gune horietan,
adimen-desgaitasuna edo garapen-desgaitasuna
duten pertsonentzat eta haien familientzat
garrantzitsuak diren gaiak landuko ditugu.

Baita Plena inclusión **elkartearen mugimenduaren** etorkizunerako ere.

Elkarte-mugimendua bultzatuko dugu.

Plena inclusión elkarteko kide guztiok adimen-desgaitasuna edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen eskubideak defendatzeko eta borrokatzeko konpromisoa hartzen dugu.

Batez ere, desgaitasunaz gain, beste zailtasun batzuk daudenean.

Adibidez: ekonomia-arazoak.

■ Erabakiak hartzeko, inplikaturako pertsona guztiak kontuan hartuko ditugu. Horrek esan nahi du ziurtatu egingo dugula haien iritzia eman ahal izatea eta gai garrantzitsuetan nahiz hobetzeko prozesuetan parte hartu ahal izatea.

■ Erakundeak gardentasunez gobernatuko ditugu eta **kontuak emango** ditugu. Horrek esan nahi du modu argi eta irisgarrian azaltzeko konpromisoa hartzen dugula:

- Baliabideak nola kudeatzen diren.
- Gizarteari eragiten dioten erabakiak zergatik hartu diren.
- Egindako lanaren emaitzak.

- Herritarrak sentsibilizatuko ditugu, hiri eta auzo inklusiboak bultzatzeko. Pertsona guztiak, adimen-desgaitasuna edo garapen-desgaitasuna izan arren, berdintasunean bizi daitezen, behar dituzten laguntzak izanda ere.

- Plena inclusión elkarteko erakundeetan

lidergo kooperatibo

eta parte-hartzailearen alde egingo dugu.

Lidergo mota honek esan nahi du

pertsona batek edo gehiagok

talde bat koordinatzen dutela,

baina beti entzuten dutela

eta erabakiak taldean hartzen dituztela.

Hau da, ez du pertsona bakar batek agintzen,

guztiek parte hartzen eta laguntzen dute.

Lidergo kooperatiboa:

Pertsona batek edo batzuek talde bat koordinatzea da, baina beti entzunez eta erabakiak taldean hartuz.

- Plena inclusión **elkartearen mugimenduaren** artean

guneak sortuko ditugu ideia onak,

esperientziak eta **jardunbide egokiak**

komunikatzeko eta partekatzeko,

beste leku batzuetan ere erabili ahal izateko.

Jardunbide egokiak:

Egoera batean ondo funtzionatu duten ekintzak dira, eta beste egoera batzuetan ere ondo funtziona dezaketenak.

Kode Etikoari buruzko informazioa

Kode **Etiko** hau 2025eko ekainaren 13an hasi zen aplikatzen, eta bertsio berri bat egin arte iraungo du.

Kode hau Plena inclusión elkarteak osatzen duten pertsona eta erakunde guztiekin partekatu da.

Kode **Etikoa** derrigorrezkoa da guztiontzat.

Honek guztiak barne hartzen ditu:

- Erabakiak hartzen dituzten pertsona-taldeak.
- Profesionalak.
- **Boluntarioak.**
- Adimen-desgaitasuna edo garapen-desgaitasuna duten pertsonak.
- Senideak.
- Elkarateak, fundazioak eta beste erakunde batzuk.
- **Federazioak.**
- **Konfederazioak.**
- Plena inclusión elkartearen parte hartzen duten beste pertsona batzuk.

Horientzat guztientzat derrigorrezkoa da

Kode **Etiko** hau betetzea.

Erakundeetan lan egiten duten

pertsonek eta gobernu-organoetako kideek

dokumentu hau sinatu dezakete,

betetzeko konpromisoa dutela adierazteko.

Plena inclusión elkarteak

prestakuntza-ekintzak antolatuko ditu

Kode hau hobeto ulertzen laguntzeko.

Horrela, interesa duten pertsonek aukera izango dute:

- Kode **Etikoa** ulertzeko.
- Kodea haien egunerokotasunean erabiltzeko.

Zer egin Kode Etikoari buruzko zalantzak badituzu?

Plena inclusión elkarteko erakunde bateko kide bazara eta Kode **Etikoari** buruzko zalantzaren bat edo arazoren bat baduzu, **Etika** Batzordeari galdetu diezaiokezu.

Etika Batzordea gai **etikoei** buruzko zalantzak argitzen laguntzen duen pertsona-talde bat da.

Batzorde honek:

- Modu independentean lan egiten du.
- **Konfidentzialtasuna** gordetzen du.
Hau da, informazioa arreta handiz zaintzen du eta ez du partekatzen baimenik gabe.
- Orientazioa ematen du.
- Kode **Etikoa** hobeto ulertzen laguntzen du.

Etika Batzordearekin harremanetan jartzeko, helbide elektroniko honetara idatzi behar duzu: comitedeetica@plenainclusion.org

Zer gertatzen da galdera bat egiten duzunean?

1. **Etika** Batzordeak zure galdera jasotzen du eta erantzun egiten dizu jaso duela ziurtatzeko.
2. Informazioa arreta handiz aztertzen du eta ez dio beste inori ezer esaten.
3. Beharrezkoa bada, informazio gehiago eska diezazuke egoera hobeto ulertzeko.
4. Amaieran, txosten bat idazten du ideia eta gomendioekin, zer egin erabakitzen laguntzeko.

Eta zerbait salatu nahi badut?

Norbaitek Kode **Etikoa** edo zure erakundeko arauen bat bete ez duela uste baduzu, ez duzu **Etika** Batzordera idatzi behar.

Kasu horretan, zure erakundeko **Salaketa Kanalera** idatzi. Zure erakundeak **Salaketa-kanalik** ez badu, idatzi Zuzendaritza Batzordeko edo Patronatuko kideren bati.



Salaketa kanala:

Posta elektroniko bat edo telefono bat da. Bertan, pertsonak ohartarazi dezakete zerbait gaizki dagoela, edo norbait ez dela arauak betetzen ari kontatu dezakete.





POR SOLIDARIDAD
OTROS FINES DE INTERÉS SOCIAL



www.plenainclusion.org

General Perón, 32 - 1ºB
28020 Madrid

